



# OINARRIAK

---

## 0 LEHIAKETAREN DESKRIPZIOA

Rockein! Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako musika proiektuak bultzatzea bilatzen duen lehiaketa bat da, talde eta bakarlariei zuzendua, eta sarien aldetik, musika alorrean aktiboan dauden profesionalekin material berria grabatzea, produzitzea eta masterizazioa egitea eskaintzen da, eta baita ere Bizkaiko aretorik garrantzitsuenetako batean nahiz MAZ Basauri festibalean parte hartzeko aukera eskaintzen da.

Rockein! Basauriko Udalak antolatu du (hemendik aurrera "Antolakundea"), eta laguntzaile izan ditu Arrigorriaga, Galdakao eta Laudioko Udalak.

Rockein! antolatzen duenak 2017ko urtarrilaren 24tik 2017ko martxoaren 24ra arte onartuko ditu izen emateak. Epaimahaiak sei talde finalista autatuko ditu, zuzenean, Basauriko Sozial Antzokian parte har dezaten maiatzaren 13an, larunbata. Zuzenekoan ondoren, epaimahaiak lehiaketaren irabazle zein talde izan diren erabakiko du.

## 1 SARIAK

Rockein!-ek eskaintzen dituen sariak honako hauek dira:

### TALDE IRABAZLEA;

- EP profesional bat grabatu, ekoiztu eta masterizatu (gutxienez bost abesti) Bilboko El Tigre Estudioan.
- EP-aren diseinua eta 500 kopien edizioa.
- Bideoklip profesional bat grabatu eta ekoiztu.
- Kontzertua Bizkaiko areto garrantzitsuenetako batean nahiz MAZ Basauri festibalean parte hartzea.

### TALDE LOKAL ONENA:

- Kontzertua Bizkaiko areto garrantzitsuenetako batean nahiz MAZ Basauri festibalean parte hartzea.

### EUSKARAZKO TALDERIK ONENA:

- Abesti baten grabaketa eta ekoizpena Bilboko El Tigre Estudioan.
- Kontzertua Bizkaiko areto garrantzitsuenetako batean nahiz MAZ Basauri festibalean parte hartzea.

#### **PUBLIKOAREN SARIA:**

- Kontzertua Bizkaiko areto garrantzitsuenetako batean nahiz MAZ Basauri festibalean parte hartzea.

Epaimahaiak edozein sari huts deklara lezake.

Sariak ezin dira metatu, eta beraz, talde bakar batek ezingo ditu bi irabazi.

Sarien tramitazio lanak 2017ko ekainaren 19tik aurrera.

## **2 BALDINTZAK**

Lehiaketan, hurrengo baldintza hauek betetzen dituzten talde guztiak eman ahalko dute izena:

- Parte hartuko duen taldeak, gutxienez, **Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan** jaiotako edo egoitza bertan duen kide bat izan behar du.
- Kideek **16 urtetik gora** izan behar dute.
- Izena emateko unean, **ez dezatela disko bat baino gehiago eduki editatuta, hori diskografia kontratu baten menpe egon ala ez.**
- **Abestiak originalak** izan daitezela. Antolatzaileek horrela eskatuz gero, horren egile izatea frogatu beharko da.
- Musika estilo guztiak onartzen dira.
- **Aurreko urteetan saritu izandako taldeek ere parte hartzeko aukera** izango dute baina hauek, ez dute sari bera errepikatzeke aukerarik izango.

**Antolakundeak**, Lehiaketako edozein fasetan, **lehiaketako oinarrietan ezarrietako baldintzak betetzen ez dituzten taldeak lehiaketatik kanpo utziko ditu.**

## **3 IZEN EMATEAK**

Lehiaketarako izena eman nahi duten taldeek **inskripzio-orrria** bete beharko dute (hori hemen aurkituko duzue: [www.basauri.net](http://www.basauri.net) eta [www.facebook.com/rockein](http://www.facebook.com/rockein)), eta 2017ko urtarrilaren 24tik martxoaren 24ra bitartean hurrengo helbide elektroniko honetara bidali: [rockeinlehiaketa@gmail.com](mailto:rockeinlehiaketa@gmail.com). Honekin batera, honako dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- **3 abesti** mp3 formatuan.
- **Taldearen argazki bat** jpg formatuan.
- **Taldearen deskripzioa eta historia** doc, docx edo pdf formatuan.
- **Taldeakideen errolda-agiriaren nahiz NAN fotokopia**, EAE-ko edo Nafarroako bere jatorria egiaztatzeke helburuz.

Gutxienez kide bat hurrengo udalerriren batean erroldaturik duten taldeek **TALDE LOKAL ONENAREN** sailean aurkeztu ahal izango dira. Beharrezkoa izango da jatorria NAN-aren edo erroldako egiaztagiaren fotokopiarekin frogatzea, izena emateko orrialdearekin batera aurkeztuko dena:

- Basauri
- Arrigorriaga
- Galdakao
- Laudio

Izena emateko orria eta goian adierazitako dokumentuak eskuz entregatu ahal izango dira, edo bestela, posta bidez Zirt Zart Bulegoko instalazioetara (harrera ordutegia; astearteak eta ostiralak 10:00etatik 13:00etara, eta asteleheneetik ostegunera 16:00etatik 20:30era bitartean) hurrengo helbide honetan: Basozelaiko Gizarte Etxea – Basozelai kalea 11 – P.K. 48970 – Basauri (Bizkaia)

Eskatzen diren datu **pertsonalak** **Datu pertsonalen Babeserako lege-arauegian ezarrita bezala erabiliko dira**. Ildo horretan adierazten dizugu ezen, zure datu pertsonalak fitxategi batean sartuko ditugula. Datu horien erabilerak izango duen helburua, lehiaketaren gainean taldeari, informazio jakingarria ematea da. **Taldeak datu pertsonaletara sartu, zuzendu, baliogabetu eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango du**, Antolakundeari idatziz horrela eskatuta.

Lehiaketatik kanpo geratuko dira edukiagatik, hizkeragatik edo mezuagatik sexu diskriminazioa bultza, edo iraingarriak izan, sentsibilitatea zauritu edo hirugarren pertsonen eskubideak bortxa ditzaketen proposamenak.

Antolamenduak beretzat gordetzen du izen emateak birkalifikatzeko eskubidea, hori egitea egoki ikusiko balu.

#### **4 LEHIAKETAKO EPAIMAHAIA**

Epaimahaia **musika alorreko** profesionalaz, **prentsa eta irratiko** musika profesionalaz, eta lehiaketako **antolatzaileen** ordezkarienez **osatuta** egongo da

#### **5 TALDEEN HAUTAKETA, AMAIERAKO KONTZERTUA ETA EPAIMAHAIAREN ERABAKIA**

Izena emandako banda guztien artean, **epaimahaiak horietako sei hautatuko ditu, Basauriko Social Antzokian zuzenean parte har dezaten 2017ko maiatzaren 13an, larunbata**. Horietako hiruk **TALDE IRABAZLEA** izateko lehian arituko dira, eta beste hirurek **TALDE LOKAL ONENAREN** saria jasotzeko. Antolatzailearen irizpideen arabera, banaketa hori aldatu ahal izango da. Kontzertuaren ondoren, epaimahaiak emandako erabakiaren berri emango da.

Kontzertuan **zuzenean parte hartuko duten taldeetako kideak, eta inskripzioan agertzen direnak, berak** izan behar dute. Kideren baten aldaketa halabeharrezko arrazoiengatik zuritua egon behar du, eta **antolakundeak baimendua izan behar du**. Edozein kasutan, ordezkoak Oinarri hauetan jasotako baldintzak bete behar ditu.

#### **6 JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK ETA BAIMENTZEAK**

Azken faseari hasiera eman aurretik, beren abestiak jabetza intelektualeko eskubideak babesten dituen erakunderen batean erregistraturik dauzkaten sailkatutako bandek Lehiaketako antolatzaileei jakinarazi behar diete. Hori, parte hartzaileen eskubideak babesteko helburuz, eskatzen da.

Parte hartzaileek Antolakundeari baimena ematen diote Lehiaketan parte hartzearen sortutako musika eta irudiak, helburu komertzialik gabe, zabaltzeko.

#### **7 ANTOLAKUNDEARI BURUZ**

Antolakundeak bere gain hartzen du, lehiaketa hobeto garatzeko helburuz, oinarri hauek aldatzeko eskubidea.

Lehiaketaren antolakundeak ez du ardurarik hartzen parte hartzaileek bidali ditzaketen gaien gainean, baldin eta horiek hirugarrenen egile-eskubideak bortxatuko balituzte; erreklamaziorik egongo balitz parte hartzaileak izango dira arduradun bakarrak.

#### **8 OINARRIAK ONARTZEA**

Lehiaketan parte hartzeak Oinarri guztiak bere osotasunean onartzea suposatzen du izena emandako kide bakoitzarentzat.

**ARGIBIDE GEHIAGORAKO:**

Basauriko Udala - Zirt Zart Gazte Bulegoa

-Telf : 944 666 430

-Emaila: [rockeinlehiaketa@gmail.com](mailto:rockeinlehiaketa@gmail.com)

-Web: basauri.net

-Sare Sozialak:

-Facebook: facebook.com/rockein

-Twitter: #rockein @rockeinrock